

Abadiño

Eriotzak

Eguren'tar Martin Marteneko, ta Galdeano'tar Maria Ignacia, Astolako eleizakoak eta Aita deunaren onespenea artuta jaunaren besoetan, igaro dan asten, il ziran. Euren seme-alaba ta enparau seneideai atsekabean lagundu ta irakurleai otoi'tz bat euren gogoaren alde eskatzen dautsegu.

Azterketak

Dorronsorotar Guadalupe'k bosgarren eta seigarren urteko pianuen, Bilbon azterketan gorengo notak atera dituz, Zorionak berari ta bere ixeko Solozabal'tar Ilari irakaslereari. Baita azterketan Nebreda'tar Enriketa ta Arabiotorre'tar Itziarrek ondo urten dabe. Zorionak.

Lekaime eskañak

Bizkarra'tar Matildek Zumarragan, igaro dan astean, lekaime-eskañak ixan ditu. Au dala-ta, etxeko, guraso ta senideak bertaratu ziran. Bere zesegeñek betetan Eibarre-datorrela entzun dogu. Zorionak berari ta sendiari.

Yayotzak

Aranoa'tar Julian ta Zenarruzabeitia'tar Maria Pilarrek semetxo bat Jon Peli euzkel izenagaz ugutzau dabe.

Arrinda'tar Francisko ta Amezua Kristiñak Iñaki euzkel izenagaz.

Urue'tar Leon ta Ortuzar'tar Donatak be Iñaki euzkel izenagaz.

Euzkaldunai euzkeraz. Euzkaldun zintzoak orixe egin bear dabe. Bereinkua'tar Saturnino ta San Agustín Etxebarria'tar Patricia'k Julia izenagaz. Zorionak gustiori.

Mendiola

Mendiola'ko bide barrian ba dabir arria zapaltzen. Polito geldituten da. Kistobal deunaren egunean bel-billa daukenak aurtan yoateko era izango dau.

Fermin Mañariko aidaplanuan etorriko dala diñue. A ba-dator, guk begapau ta baño ezpada be, goiko aizeok zelakoak diran ikusteko be, osterata bat goitik egingo geunke ba.

Ermenegildo Intxaldekok be diru apur bat emongo ei leuke, aidaplanuan ibiltearren.

Bein ara gora igon ezkeru «se- guridade» apur bat be bear ei da, bestela an goiyen kili-kolota asi ezkeru, Ermenegildok diño zeri oratu ez da-goala, beko daunbasoa artu arte. Fermin, Tramankuluori ondo gertautau ekarri.

TRAÑA.

**Eliez - Jantzi ta urregintza
A. Rui-Wamba**

Eliezak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.23

BILBAO

Muxica

Txadonkizunak

igandean ozpatu zar erri onetan. Oso notintza aundija urreraturik yozuren gopuz bizija, zerutik jatziriko ogia, euren biotzetan artu eta esker beroak emonik abesti gozotuta zan goizeko elizkizun oniragarrija. euren abots zolijakin. Olan amaitu. Eta arratzaldeko elizkizuna 3'reta izan zan. Goizian lez abesti txukunak abestu ebiezan bertoko emakumetuak eta tzonitza, Zallo-etxebarria'tar Jon Izlari ospetzuak egin euskun.

Naskaldija

Pedernales aldetik izan da iru egunian tzonitzak egiten-edo erri onetako Txauburu jauna.

Igandez emen izan dogu Zorno tzako lekaide bat.

Eta baita emen agurtu dogu Ybarri'n len egon zan Txauburu jauna. Eta emeko txadonkizuna amaitu ondoren beragaz eroan eban Zallo-etxebarria'tar Jon Ermu aldera txonitza egiten. Jaunak lagundu bejoe.

Opor alditxua igaroten etorrita emen aurkitzen da Apraiz'tar Jon abadegeija. Ongi etorrija.

Ugutzak

Arribalzaga'tar Ander eta beren emazte Pirmiñe'k alabatxu bategaz euren sendija geitu dabe eta ugutzan Miren Josune euzkel-izen begikoak ezarri dautzoez. Zorionak, eta euzkotar zintzo lez azi.

Jabier izenagaz ugutzan dabe Urkiaga'tar Domeka ta Jaiotar Andonizen semetxua.

Garbiñe euskel izen politagaz ugutzau dabe Azpiazu'tar Nikola eta bere emazte Errosen alabatxua. Abertzale zindoak izan daitezela.

Errota barriko Yoseba eta bere emaztiak izan daben semetxuari Josu izen polita ezarri dautzie. Zorionak gurasoari eta Josutxuri.

Yzpar ituna

Uste uste barik derrepente il zan Aurre'tar Pia C. B. Alegria'tar Yoseba Andoniren emaztia. Laguntzen dautset atsekabian beren sendi saminduari Otoi egin daijogun bere gogoen alde eta Jaunak donokijan eukiko al dau.

PRAKA NAZAI

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekañale, 50 BILBAO

Gerena

Debekatzetizala

Guz ez, beste askok be, diño alderdi Jeltzaleak bakarrik egiten dituela erriko jayetari, jairik ederrenak eta goragarrienak. Ermu'ko Jeltzale jatorrak urtero Geria-auzuneari jai begiko bat egiten izan deutse ta aurtan be bai baña. ¿Zertarako Ermu'ko Jeltzaleai Mallabi'ko alkateak debekau bear deutse jai ori egitea? Geriar gaztioz Ermu'ar Jeltzaleakin geure asarria erakutsita protestatuten dogu. ¿Gora Ermu'tar Jeltzaleak eta onei ezkar eta Jainkuak nai badau datorren urterarte, agur!

Jazoriko bat

Bein, aintxiñetxo mutil bi oso gau-ibiltarijak ei ziran, ezeterabe iñok ezin etxeratu eukiezan. Aldi-tan ba, Sakrisek, itxaz-ontziko turutu gogor bat euki ei eban eta etxe onduan ebizela mutillak zarataka jo ei deutse turutuiri gogoz. Eta orduantxe bai mutillak atzera begitzeko asti barik, arin etxera, bakotxa bere lekure ta gañera dana estuta, izerdi batzetan, larrien larri bijaramonean be ondiño dardar ei egozan, eguna zabaldua gero be.

IKASLE.

Barinaga

Jauna-artze nausia

Lenengoz eta ganerako mutikonezkatuak Josusen-Bijotz egunian Jauna-artze nausia egin eben. Gero gozari gozuak egiñaz, umetxuok elizpian azko jolastu ziran. Arratzalde beranduan elizkizun ederra egin zan itzaldi ta gusti. Ainet lagun erdu ziran. Urrenguan geyago ixango garijala-ta gagoz.

Arto-ereiten

Aurtengo arto-ereta ezta laburra izan. Orain dala ogeta sei urte be,



¿Itxasontzijen jabe ala Itxasketa-Bazkunen bateko bazkide ete zara?

¿Zeure salkariak iñora bidaltzen ete dozuz itxasoz?

¿Zeure ekintzarako ala salostetxerako salkaririk itxasoz iñondik artzen ete dozu?

Izan leyezan afiskuetzaz, gitxi ordainduta, eskier ixan gura bazara; okerik, galtzerik dabenetan, laster eta zuzen, yaotzuna artu gura badozu, zeure ogitukuai.

“La Polar” Eskier-Bazkunak

Bilbo'n Hurtado de Amezaga 8=Ufutzikiña 9797

eskierertu dagiezala agindu.

Bazkun au Euzko-Erijan sortuaz ganera, geure Erijan geyen itxas-afiskuak eskieretzen dauduz na

aurtentako arto-ereite luzia ixan zan. Ereir eta berrogei egunerako artua loratu zan eta arto-indaba ederrugarijak ixan ziran. ¿Nok daki aurtent be olako bat ixango badogu? Itxaropenik ezteigun galdu Jauna errukiorra da ta!

Auzo onetako jayak

Elixa'tik ataz edo kanpora diran jayak, nik baño obeto dakixu, zelanguak ixango diran. Aldi onetako geyenak beintzat Deuna edo Santuak aotan artu ta gero euk biotz osuakin gorrotatzen dituen jolaz lizunak eraltzea dala.

Egija ete da edo ez ete da? Erabagi ta laster ikusiko genduke!

Diñoenak

Baso-bidiak be liortu dirala ta igeri ezin, nundik nora dabizan onek alagalakuak baña. Batek buru ta beso ereñak ugari ei dabiz aspaldijan sukaldari baten aurrian. ¿Nor ete da?

TXEPETX-ORDE.

Mañari

Elizkizuna

Igande jarratsaldian elizkizun ederra egin zan. Eta bertan, Arrue'tar Joseba Pantzeskatarr Aba ospetsuak, Josu-Bijotz gozua'ganako ta Pantzeska Deuna'ganako eraspentzaz itzaldi ederr-ederra egin eban.

Irlari orgi onek, Josu-Bijotz Deuna'ganako eraspena, guk euzkotarrak geure-geuria dogula ezan eban, eraspent deun-onuratsu orri, kardaberratz Ata euzkotarr Josulaunok emen inguruetan iñok baño lenago zabaldu ebalata. Bata, beste gauza on askoren artian, asabakandik arturiko euzko-atura on eta garbijak be, ondo-ondo jaboteko arren eta eta arren egin euskun (Otura on eta garbijen biarra ba-dago egon be). Birau ingarrija aurretik dala, dantza zikin eta beste otura txarr asko ta asko euzko-erririk txikijetoraño bape letra barik sartu ixan dira ta...

Arrue Aba'ren itsaldi ederra, entzaliari, oso-osuan atsegin izan yakun, Jaungoikua'ren itza, euzkera ain ederr eta gozuan oguziteko eban era-egokijak bene-benetan atsegindu ginduzan.

Zorijonak Arrue Aba agurgarrija, beorren itzaldi ederragatik.

Juan-Etorriak

Bilbo'tik etorri zan Ozerin'darr Margarite andera.

—Bilbo'ra juan zira Goti tarr Ander eta Jon anyak.

—Lengo igandian egon zan emen Iturbe'tar Pantzeska aberrkidia, gure txauburu jauna'ren anyaa.

—Iglesias Peli (Artzubi ko «señorita») egunontan emetik ixan biarr dau.

Zorija norentzak?

Zorketarako txartelak, atzera begira egon barik bizkor-bizkor truka doguz. Orain, ogerlekuak nora jausiko ete diran oldoztuten gogor... Batak, subertiak buruan jaten badau jo, au ta ori egingo dabela diño, bestiak ostera diruok onetan dauzala ta abarr esatera daragoyo... Neuk be, kuan osmutxu bat badot; ogerleko orreik, eskuak berotzen ba daustiaz beratu, Ekin'en saltzale zintzua dan Patxiko sakristuari, «gorbeta» dotore bat erostekotan nago ta, bere emaztiagaz ortik-ziar doyanetan dotore-dotore ibili daten be...

Ixilik dagoz...

Aspaldixuan otxandijoarren zaratik be ezta; ixil-ixilik dagoz... Lantzian-bein, «pelegrino» bat edo beste emetik igaroten ikusten doguzan arren, eurretan ezertxu be ezta-kigu. Onezkeru, «Anboto» idarliak azkenak egin ixango dauzalakuan gazoz... Ori olan ba-da, bere alde «Ata guria» bat ondo gogotik erre-zauko dogu. Esanak esan, eta egiñak eginda be, gorrotorik eztautzagu ta.

Bermeo'ko «Artalde»

Nor zarian eztafidan arien, zure itlazki begikuak pozez irakurten do- doz beti, olantxe aurrera ekin. Eta, keresak jateko orrenbeste gogo do- zuz ezkeru, bagilian ixan ezkeru, zeuk gura dozunian etorri; Mañari'n keresak, il onetan dagor ugerijen egon be-ta.

Okerra zuzendu...

«Astronomo» barrijak, il ontarako ekatx andi-bildurgarrija iragorri ebalá, lengo idazkijan esaten neutzuen. Ori baña, oker ulertua ta neokerr esana ixan da; ekatx ori il-onetan barik urte onetan ixango dala ei-diño ta, Ekatz orretan barriz, arro-bako arrijak jausiko ei-dira...

Orra ba, okerra artez ta zietz zuzenduta... Guk izporkorijok «kreditu» apurr bat euki gura ba-dogu euki, olako gauzatxuetan be zietz ibili biarra ixaten dogu...

MAÑARIKO

Murelaga (Aulestia)

Gonzaga'tar Luiz Deuna

Igaro zan igandian aundikiro ozpatu eben Luiz'tarrok Luiz Deuna- ren eguna, eta beragaz batera Josu Bijotzaren eguna be barikuko ordez igandian ozpatu zan; erririk geije-

nak euren etxietako leijuak jantzi ebezan eta abertzalien ikurriñak be zabal zabalik axiak bater ata bes- tera eragiten entzela euren edertasu- na agertzen eben. Baña asi naitian Luiz'tarren jaija zelakua izan zan azaltzen.

Gasuan lenengo seitaerdijetako mesatan jauna artzia ixan eben, ija eunen bat mutil gaste bertara eldu- rik, eta ez mutil gastiak bakarrik bata gixon, andra eta Maria'ren ala- bak be; gustiz lareunen bat notin izan ziran jauna artuten. Mesa nago- sira-be makiñatzu bat notin izan zan eta Jaupa erri guztijak abestu eban. Txonitza Totorikaguena'tar Ata Domingo bertoko semiak egin eban.

Arratzaldian iruretan asita bespe- rak abestu situezan Luiz'tar eta Ma- ria'ren alabak abadiakin batera baña abestutia zan; gero agurtza Deuna gure Jauna agirian zala, ezkutuki gustijetan abestitu bat abestuz; ondoren txonitza ata Domingok egin eban, baña bai ederto azaldu ze Luiz Deuna zelakua ixan zan eta irakas- pide ederriak emon be gastieri. Az- kenez Luiz Deunari abestitu bat abestuz amatu eben.

Elezkizun ederra benetan izan san igandekua.

Jayotza

Uriarte'tar Julian eta bere emas- tiak alabatzus bategaz getu dabe euren sendija. Zorijonak.

Euzkel-ixena

Ibarluzea'tar Peli eta Lamikiz' tar Fidela'k alabastzu bategaz getu dabe euren sendija eta ugutzan «Li- be» euzkel ixen polita ezarri eutzen. Ata ama bitxiak Urkijo'tar Jose eta Maria Angeles ixan ziran. Zorijonak danori.

URREGARAI ASPIKO GASTE BAT.

Bilbao

Noiz-noiz eldu gara uda aldiko egunetara. Sasoia zan eguzki epela- ren erriak agertuteko, baña bildur ixatekua da egun onek onelas jarra- tuko ete daben edo ez. Bein bat «ba- rometruak» beian dabiltzaz eta edo- jak eztabe etxura on-onik. Ludijak bira andija artun dau era gustiye- tan, orixe bai.

Itxas-ikastolak edegita geratuten diran barrija emon dauskube. Ikas- taruok lenengo eta bigarren maki- ñistak gertuteko ixango dira, eta onetarako ikastaruok illa onen ogei- garrenetik ixan be.

Eguaztenian mintzatu zan «Cen- tro Vasco» bazkun Landaburu'tarr Pantzezka, aldun ixandakua. Bere itzaldija irratiz entzun zan, eta Ara- ba'ko lagi-Zarra'tzaz itz egin eban.

Bakaldarren ikurra bere jantzije- tan eruan ebalata, jaurrlarijak egun laurlegogaz zigortu dau Perdigo'tar Maria Pilar eritxon neskatilla.

Trueba Pardo bazkunak bialdu- ta milla laurleko artun dauz Er- koreka endoriak, lan bakuan alde. Endoriak eskerrak emoten idazki bat zuzendu dautso.

Gurrutxaga'tar Ildeopntza jaunak emonda, bigarren itzaldija espatu zan astelenian, Korrio txaiñe'ko «Centro Vasco» bazkun. Jaun onek itzaldi ederra Gipuzkua'ko Lagi-Zarra'tzaz egin eban.

Igandian Bilbao'k zabaltasun an- dija ixan eban. Bilbao'tar geyenak alde egin eben mendi ta baserri-zarr, egualdi onari erantzuna emoten: Ki- roltzale Bazkunakuak Bizcargi men- di'ra juan ziran.